

## **Euskaltzaindiari esker onez**

Euskaltzain emeritu bilakatzean, eskerrak ematen dizkiet Euskaltzaindiari, euskaltzain lagunei eta Euskaltzaindiko kide guziei.

Lehenbizikorik eskerrak euskaltzain lagunei zuen pazientzia luzeaz. Hogeita hamabost urteko epea bizitza batean ez da guti, eta zuetariko bakarren batzuek hasieratik jasan naute, ni baino lehen hor baitzeuden.

Bigarrenik eskerrak orokorki Euskaltzaindiari, apezpiku bat baino hobeki tratatzen nauelako. Apezpikuak ene adinean lekua hustu behar du. Nik ordea deus ez dut galtzen bilkuretara etortzen ahal naizeno, eta gero nire baitako ahalmen horren galtzea duket handiena, lege guzien gainetik, hor Euskaltzaindiak ez baituke ogenik.

Hirugarrenik zorion bat baduket, nire aitzinekoek gozatu ez zutena: nire ondoko euskaltzaina, Zuberoako tituluduna, laster ikusiko dut, erran ohi den bezala Jainkoak nahi badu. Eta horrela, emerituen legeari esker, Euskaltzaindia gaztetzen da.

Agur berezi bat Euskaltzaindian neronek zuzenka ezaguturik, gure aurretik mundu agian hobe batera joan zaizkigun euskaltzainei: Arrue, Dassance, Lafitte, Larzabal, Mitxelena, Irigarai, M. Lekuona, Villasante, Hiriart-Urruty, Irigoien, Krutwig, Satrustegi, San Martin, Altuna, J. M. Lekuona, Ondarra, Iratzeder, Zabala, Eguzkitza, Knörri, eta norbait ahantzi balin badut, otoi barka dizadala.

Eskerrik anitz halaber ohorezko euskaltzainei, euskaltzain urgazleei, Euskaltzaindiko kargudun, langile eta laguntzaile guziei, atzokoei bezala gaurkoei.

Donostian, 2010eko uztailaren 23an  
Jean-Louis Davant